

LAUBIDE

FELIX
IBARGUTXI

IBAIK, TOKI BENETAN BIZIAK

'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketak ibaiak zuten garrantzia azaltzen du

Sagardo ibaiak, bizitza iturri izenburuko erakusketa egon da ikusgai Hernanin. Maiatzaren 13tik 22ra bitartean Usurbilen egongo da, irailean Astigarragan eta 2017an Donostiako Aquariumean.


Erakusketa ibiltari hau Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalek Sagardoaren Lurraldearekin sagardoaren kultura sustatzeko sinatutako hitzarmenaren harira eta Donostiako Aquarium-ekin elkarlanean sortutako proiektua da.

Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo herriei buruzko alderdi ezezagunak ematen ditu ezagutzera. Hernaniren kasuan, esaterako, honakoa: aurreko mendeetan Urumea garraio-bide oso-oso garrantzitsua izan zela eta Hernanin bertan zazpi portu izan zitela: Arbizu-Portu, Portu, Zikuñaga, Osiñaga, Caparrote, Epele eta Fagollaga. Horietan garrantzitsuenak Portu izenekoak izan ziren. Udalerri jaket-


zakoa zenez, izaera antzira izan zuten eta probintziaren barnealdea eta Nafarroaren arteko harremanetarako lotunea izan zen itsas merkataritzan; Urumea, Leitzarain eta Oria bailaretako beharrei erantzuten baitzien. Hernanitik Donostiara burdina, sagardoa, sutako egurra eta arraunak eramaten zituzten, bestek beste. Eta alderantziz ere hainbat jenero garraiatzen ziren, horietako asko gero mendibidez Nafarroara iristen zirenak.

Oso erakusketa grafikoa da. Hitz gutxiakoa, eta hitz ondo aukeratuak dituenak. Aldamean, goian, ageri den mapa hori da ikusgaietako bat. XVIII. mendean egina da, eta deigarria egiten zaigu ibaietako ematen dien protagonismoagatik. Zer gertatu zen? Gero trenbideak egin zirela, baina duela bi-hiru mende ibaiak garraio-bide oso inportanteak ziren. Batetik ibaiak agertzen dira mapan, bestetik herri-izenak, ia beti herriak ibaien ondoan.

Aipatutako mapaz gain, erakusketan badago marrazki bat -azpiko hori-, non Ergobiko pasabidea ikusten den. Lourdes Odriozolak -erakusketarako lan egiten duen historialariak- adierazi didenez, bere lagun batek topatu zuen irudia Zaragozako Artxibo Probintziallean. «Idiaketarren paperen artean zegoen eta, nahiz eta datarik ez dakarren, erraza da asmatzen, letra-motarengatik: hamaseigarren mendekoa da, bigarren



XVIII. mendeko mapa honetan protagonismo handia daukate ibaiak, orduan zeukaten garrantziaren isla.



Ergobiko zerga-etxea eta aldameneko sagastia, XVI. mendean.

mende-erdikoa. Kontuan hartu behar da Idiaketarren leinu handia zela Gipuzkoan, baina kanpoan ere bazituztela ondasunak», esan dit Odriozolak.

Marrázkian Ergobiko etxea ikusten da; hantxe jasotzen ziren ibai garraio-bide moduan erabiltzeagatik ordaindu beharreko zergak. Jeneroaren eta ki- loen arabera izan ohi ziren zergak: adibidez, burdinagatik askoz gehiago ordaintzen zen. Eta marrazkiaren eskuinaldean,

personak ibaian alde batetik bestera pasatzeko zegoen ontzia ere ikusten da.

Ergobia oso toki estrategikoa izan zen. Erdi Aroan, eta baita geroago ere, Murgiako jauregiko jauna erabateko jaun eta jabe zen ibaiarena. Berak gobernatzen zituen ibai-bazterrak. Astigarragako biztanleak Santiagomendin bizi ziren eta Urumea arimatu behar zuten bakoitzean zerga ordaindu behar zioten handikiari. 1382an kontra-

tua sinatu zuten Santiagomendiko heritarrek Murgiako jaunarekin, Ergobira zihozten bideak erabili ahal izateko. Baina heritarrok makina bat aldez eraman zuten auzitara Murgiako jauna. Gipuzkoako Batzar Nagusietan 1478an hasi ziren eztabaidatzen astigarragarrek agertutako protesta. 1578an, auzitegi batek legez kontraktotzat jo zuen Ergobiko bide-saria. Erakusketan azaltzen denez, 1580an, San Juan de Olabide alkate izeneko harakina Astigarragako alkate izendatzeak gogotik haserrarazi zuen Murgiako Felipe, jauregiko nagusia.

Zein ziren Urumea ibaioko puntu garrantzitsuenak? Santa Catalinako portua (Donostiako haretza handi baten aldamean, egun Victoria Eugenia antzokia dagoen alde horretan), Ergobi eta Hernaniko Portu.

Murgiako dorretxea erre egin zuten tropa frantsesek 1512an. Berreraikia izan zen eta hain zuzen ordukoa da gaur egungo eraikina. Hamaseigarren men-

deko testigantzen arabera, lau sagardo-upel handi egoten ziren jauregi horretan, guztira 22.500 litro.

Lourdes Odriozola historialariak esanda: «Sagardoa orduko urrea zen». Itsasora ateratzen zirenek -Ternuara eta ez hain urrutiko itsasoetara- sagardoa eramaten zuten edateko, ura teldu egiten baitzen behin aste batzuk ezkerre. Ternuara balea ehizatza zihozten haiek bi-hiru litro sagardo edaten zuten egunean. 1542an, Hernaniko Ordenantzek agindu zuten sutea gertatzen zenean herrian soberan zegoen sagardoa erabili behar zela itzaltzeko.

Pierre Lancre inkisidoreak hau esan zuen: «[Euskal Herria] sagardoaren herrialdea da. Bertako emakumeek sagarrak bakarrik jaten dituzte, sagar-urra bakarrik edaten dute eta ezarrita dagoenaren aukerako sinboloak, sagarrari, kosk egiteko daude oneorot.

fibargutxi@diariovasco.com